

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus - www.donostia.ehbildu.eus -

MOZIO ARRUNTA

**DONOSTIAKO ADINEKO ETA MENDEKO PERTSONEI ARRETA EMATEKO ZENTRO GERONTOLOGIKOETAN
EGIN DIREN IKUSKAPENAK DIRELA ETA**

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Donostiako adineko eta mendeko pertsonen arreta emateko zentro gerontologikoetan egin diren ikuskapenak direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

ELA sindikatuaren salaketa baten ondorioz, ikuskapen bat egin zen Txara I egoitzan (Donostia), eta haren ondorioak irailaren 29an argitaratu ziren, hainbat komunikabidetan. Bada, Gipuzkoako zaintza-sektoreko langileen eskariak -260 bat egun daramatzate greban- ondorio horiek berretsi besterik ez ditu egiten: alegia, premiazkoa dela zuzeneko arretaren ratioak handitzea eta langile gehiago kontratatzea.

Zentroetan lan egiten duten laguntzaileen arabera, Txara I egoitza-zentroko ikuskapenean ikusitako zabarkeriak lurraldeko zentro gehienetara estrapola daitezke; izan ere, ia egoitza guztietan egoten dira erabiltzaileak 14 bat orduz ohean, eta, kasurik onenean, aipamen txiki bat besterik ez da egiten; gainera, langile falta dela eta, ez dute erizaintzako zerbitzu egokirik.

Ratio eskaseko eta lan prekarietate handiko egoera estruktural horrek zuzenean eragiten dio zaintzaren kalitateari, eta, pandemiaren ondorioz, areago okertu da.

Egoera jasanezina dela erakusteko, Donostiako zentro gerontologikoetako langileen bozeramaileek prentsaurreko bat eman zuten irailaren 30ean, eta honako hau salatu zuten: Alai-Etxe egoitzan 70 bat erabiltzaile 14 ordu egoten direla ohean eta jan gabe; Villa Sacramenton pertsona batzuek 20 ordu ere ematen dituztela ohean mugitu gabe, eta Txara I-en 100 pertsona 14 orduz ere egon daitezkeela ohean.

Lehenengo erantzunean, Gizarte Ekintzako diputatuak adierazi zuen ez dela egia Gipuzkoako egoitzetan langile gehiago behar direnik, eta ukatu egin zuen laguntzaileek eta senideek bizi duten errealitatea; hala ere, egun batzuk geroago onartu du ez dela behar bezala lan egin familiekin.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus— www.donostia.ehbildu.eus -

Urriko batzordeetan, interpelazio bat egin genion alkateari, hiriko zentro guztietan ikuskapenak egin daitezela eskatzeko beharraz. Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkariak erantzun zuen, alde batetik, ez dela Udalaren eskumena, eta, bestetik, Txara I-en egindako ikuskapenaren txostena ez dela behin betikoa eta ondorioen zain egon behar dutela.

Ugariak dira egungo zaintza-sisteman zerbaitek huts egiten duela eta neurriak hartu behar direla esaten diguten erabiltzaileen eta langileen testigantza eta bizipenak. Duela aste pare bat, adibidez, senide eta langile ugari elkarretaratu ziren (urriaren 16an) Berra egoitzan, hain zuzen ere, langile gehiago eta beste zaintza-eredu bat eskatzeko.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIO ARRUNTA

- Donostiako Udaltzako hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari urtea amaitu baino lehen hiriko zentro gerontologiko guztietan aldez aurretik abisatu gabeko ikuskapenak egiteko, zentro bakoitza zein egoeratan dagoen eta zerbitzu horiek hirian erabiltzen dituzten adinekoen zaintza nola kudeatzen ari diren baloratzeko.

Donostian, 2021eko urriaren 27an

Reyes Carrere Zabala

EH Bildu udal taldearen bozeramalea